



AZTERKETAK | 53

2024ko URRIA

Langile klaseak eusten du zerga sistema

Hego Euskal Herriko fiskalitatearen azterketa eta proposamenak bidezko zerga sistema baterako

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Foru Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak ez dute zerga erreforma sakonik planteatu	4
2.1. Foru Aldundiek zerga egiturari eragiten ez dioten aldaketa txikiak proposatu dituzte	4
2.2. Nafarroako Fiskalitate Mahaia zerga erreforma sakon baten beharretik arreta desbideratzeko baino ez du balio	4
3. Hego Euskal Herriko 2023ko diru bilketaren analisia	5
3.1. Diru bilketak marka berria ezarri du	5
3.2. Sozietateen gaineko zergak 2007an baino gutxiago bildu du	7
3.3. Zuzeneko zergen bidez bildutako 10 eurotik 7 soldatapeko errentek ordaintzen dituzte	9
3.4. BEZa laneko errentek ordaintzen dute batez ere	10
3.5. Ondarearen gaineko zergak biztanleriaren %1ari besterik ez dio eragiten	11
4. Enpresek zenbat ordaintzen dute benetan euren etekinengatik?	12
5. EAEko eta Nafarroako presio fiskala Europako batez bestekoa baino 8.440 milioi euro txikiagoa da	14
5.1. Hego Euskal Herriko enpresek Europako presio fiskalik txikiena dute	15
6. Iruzur fiskala enpresetan eta enpresa errentetan	16
7. Ondorioak	17
8. ELA-ren proposamenak	18
8.1. Zerga erreforma	18
8.2. Nazioartean	20
8.3. Iruzur fiskalaren aurkako borroka	20
8.4. Zerga politika osoa EAEko eta Nafarroako parlamentuetan erabakitzea	20
8.5. Gardentasun estatistiko handiagoa	21

1. SARRERA

Fiskalitatea eta aberastasunaren banaketa funtsezko gaiak dira ELArentzat, eta horregatik, urteak daramatza arlo horretan neurriak lantzen eta proposatzen. Zergen bilketa inoiz ez da polemiketarik salbuetsita egon, eta beti piztu du eztabaida gizartean. ELAren iritziz, fiskalitateak aberastasuna modu justuan birbanatzeko tresna izan beharko luke. Aberastasun hori langileek sortzen dute, baina enpresaburuen esku geratzen da. Gaur egun, Ayusoren PPK edo Argentinako presidente Mileik ordezkatzan dituzten korrante liberalek (eta libertarioek), aldiz, zergak lapurreta direla aldarrikatzen dute, eta, horregatik, zergak jaitea eskatzen dute. Eta horretarako erabiltzen duten argumentu faltsua, dirua herriarren poltsikoetan dagoela hobekien esatea da.

Argumentu faltsu hori jende askorenganaino iristen da, bai desinformazioagatik, edo bai sektore aberatsenen instrumentalizazioagatik, eta zergen jaitsierak benetan nori egiten dion mesede ezkututzen du. Azken hamarkadetan, herrialdeen eta autonomia erkidegoen arteko zerga jaitsieraren aldeko apustua zabaldu da, dumping fiskala sortuz. Horrek, kapitaletik datozen zergen bilketan izan du eragina, zerga hauen beheranzko joera ekarriz. Zerga bilketaren jaitsiera Sozietaten Zergan, Ondarean, oinordetzetan eta pertsona aberatsenei eragiten dieten zergetan eman da. Beraz, ez dago zalantzarik: zergak jaiteak kapital handiari eta gehien dutenei egiten die mesede.

Zentzu honetan, Oxfamek adierazi du %1 aberatsenak munduko gainerako biztanleen aberastasunaren ia bikoitza metatu duela azken bi urteetan. Besteak beste, txostenak erakusten du, mundu mailako 95 energia eta elikadura enpresa handik beren irabaziak bikoitza baino gehiago handitu dituztela, ezohiko mozkinak izanez 2022an (306.000 milioiko irabaziak izan zituzten). Irabazien %84 akziodun aberatsenen esku gelditu zen.

Gogoratu behar da zergak zerbitzu publikoak eta gizarte prestazioak finantzatzeko balio dutela, baina aberastasuna modu justuan birbanatzea ere izan beharko lukete helburu. Birbanaketa horrek bi alderdi ditu: batetik, gehien dutenei gehiago ordainaraztea, eta, bestetik, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea, hain zuzen, errenta txikiak dituztenek gehiago erabiltzen dituztenak.

Txosten honetan EAEko eta Nafarroako zerga egitura aztertuko dugu. Horretaz gain, neurriak proposatzen dizkiegu Hego Euskal Herriko erakundeei, zerga sistema progresiboagoa izateko eta gehien dutenek gehiago ordaintzeko. Neurri horiek, era berean, genero arrakala fiskala ezabatzen lagunduko lukete, emakumeen errentak txikiagoak direlako eta, batez ere, lanetik datozeelako eta kapital errentetan neurri txikiagoan parte hartzen dutelako.

2. FORU ALDUNDIEK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK EZ DUTE ZERGA ERREFORMA SAKONIK PLANTEATU

4.orr

2.1. Foru Aldundiek zerga egiturari eragiten ez dioten aldaketa txikiak proposatu dituzte

EAEko Foru Aldundiak zerga erreformak lantzen ari dira, baina jadanik EAJk eta PSEk adierazi dute ez dela aldaketa handirik egingo. Are gehiago, zerga erreformari dagokionez, Noël d'Anjouk, Ogasun Sailburuak, Confebaskekin izandako bilera baten ondoren adierazi zuen fiskalitateak enpresen lehiakortasuna sustatu behar duela.

Zerga aldaketarik ez dela egongo ikus daiteke Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartutako Erreforma Fiskalaren Ponentziaren Ondorioen Txostenean. Dokumentu honek, 11 "erronka" jasotzen ditu, legeetan garatu beharko direnak, eta ez dute inola ere zerga egituraren aldaketarik planteatzen. Aipatzekoa da dokumentu honek aurrera egin zuela EAJren, EH Bilduren eta PSEren aldeko bozkei eta Elkarrekin Gipuzkoaren eta PPren abstentzioari esker, hau da, kontrako botoirik jaso gabe.

ELAk Gipuzkoako eta Arabako Batzar Nagusietako fiskalitateari buruzko ponentzietan parte hartu du, eta beste gauza batzuen artean, premiazko erreforma fiskala eskatu du, enpresen mozkinengatik, aberastasunagatik eta errenta handiengatik ordaindu beharreko zergak nabarmen handitzeko eskatuz. Hala ere, parte hartze hau erabat sinbolikoa izan da, ez delako egon benetako partaidetzarik.

2.2. Nafarroako Fiskalitate Mahaiak zerga erreforma sakon baten beharretik arreta desbideratzeko baino ez du balio

Uztailean, Nafarroako Gobernuak Fiskalitate mahaia deitu zuen, eta bertan, Nafarroako aurrekontua onartzen duten talde parlamentario guztiek parte hartzen dute (PSN, EH Bildu, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin).

Mahai hau sortu da 2024ko aurrekontu itunak jasotzen zuen konpromisoetako bat zelako. ELAren ustetan, sinatu diren bost aurrekontu akordioetan lantaldeak sortzeko, azterlanak egin, analisiak egin, eta abarretarako erabiltzen den formula horrek, okerreko mezua zabaltzen du. Hau da, errealitatean berdin jarraitzen duten gaiak jorratzen ari direlako mezua helarazten dute, eta konpromisoa ez da gai horiei irtenbidea ematea, azterketa egitea edo Mahaia bera osatzea baizik.

Fiskalitate Mahaiaren osaketa honen beste adibide bat da. Mahai honetan ez da eztabaidatuko (ezta planteatuko ere) zerga erreforma sakona egitea diru bilketa handitzeko eta aberastasuna gehiago birbanatzeko. Mahai honetan "zerga neurriei buruzko hurrengo legearen lehentasunak bateratuko" dira, besterik ez. Hau da, aldaketa fiskal txikiak adostuko dira, politika fiskalaren egitura aldatuko ez dutenak eta Nafarroako Gobernuak iragartzen ari den murrizketak eragotziko ez dituztenak. Aldaketa fiskal horiek adosten diren bitartean, alde batera uzten da erreforma fiskal sakon baten aldarrikapena.

Zerga arloko akordioen edukirik eza nabarmena izan zen aurreko ekitaldiko zerga neurriei buruzko akordioan. Nafarroako Parlamentuak erreforma fiskala onartu zuen 2023ko abenduan, Nafarroako Gobernuak osatzen duten hiru alderdien aldeko botoarekin (PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin), eta EH Bilduren abstentzioarekin.

Zerga erreforma horren edukia guztiz eskasa zen. Are gehiago, erreforma horren edukia UPNren gustukoa zen. Izan ere, Javier Esparzak esan zuen "oso pozik" zegoela akordioaren edukiarekin, eta UPN erreforma onartzeko prest zegoen Iruñeko Udalean zentsura mozioa aurkeztu zen arte.

3. HEGO EUSKAL HERRIKO 2023KO DIRU BILKETAREN ANALISIA

2023rako ziurgabetasun ekonomikoa proiektatu zen arren, azkenean testuinguru ekonomikoa aurreikusitakoa baino hobea izan da. Bilakaera positibo horrek eragina izan du, halaber, Foru Aldundien eta Nafarroako Gobernuaren diru bilketaren gorakadan. Zerga itunduen igoera hainbat faktorek eragin dute. Besteak beste, hazkunde ekonomikoak, enpleguaren hazkundeak eta, bereziki, enpresa mozkinen hazkunde nabarmenak. Hala ere, diru bilketaren igoeran faktore nagusia prezioen igoera izan da. 2023ko abenduko inflazioa %3,1ekoa izan da, eta batez besteko KPI-a %3,55ekoa. Beraz, diru bilketaren ehuneko handi bat diruaren prezioaren igoeragatik izan da.

Atal honetan, 2023an gertatutakoa eta azken urteetan zerga itunduetan izan den bilakaera aztertuko dira. Zerga motaren arabera bilketa osoa, Sozietateen gaineko zerga, laneko PFEZ, BEZ eta, azkenik, Ondarearen gaineko Zerga aztertuko dira.

3.1. Diru bilketak marka berria ezarri du

EAE

EAEko itunpeko zergen 2023ko bilketa 18.212 milioi eurokoa izan da, hau da, aurreko urtean baino %6,3 gehiago. 2019arekin alderatuta, pandemiaren aurreko urtea, %17,7ko igoera izan da, eta 2007arekiko alderaketak %32,2ko igoera erakusten du.

Zuzeneko zergak, hau da, ordaintzen dituen subjektuaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen dutenak, %11,5 hazi dira iaz, 9.266 milioi eurora iritsi arte. Zeharkako zergak¹ ia berdin mantendu dira eta 8.834 milioi euro bildu dira, hau da, %0,6ko igoera izan dute.


Nafarroa

Nafarroan, zerga itunduen bilketa 5.141 milioi eurokoa izan da 2023an, 2022an baino %2,5 handiagoa. 2019arekin alderatuta, %29,5eko igoera egon da, eta 2007arekiko analisiak erakusten du %41,9ko igoera izan dela.

Zuzeneko zergen bilketa %1,9 igo da azken urtean, eta 2019tik %38,1 handitu da. Zeharkako zergen bidez emandakoa 2022an baino %2,5 gehiago izan da, eta 2019an baino %20,7 gehiago.

¹ Berdin ordaintzen direnak, gaitasun ekonomikoa edozein dela ere, hau da, errenta handienak zein pobreziaaren atalasearen azpitik daudenak berdin ordaintzen dituztenak

Itundutako zergen bilketaren bilakaera Nafarroan eta EAEn





Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina Foru Aldundietatik eta Ogasunetik abiatuta

HEH

Zerga motaren araberako analisiak oso antzeko argazkia erakusten du bi lurraldeetan. BEZak eta zeharkako zerga bereziek bildu dute gehien bai EAEn (%45,9) eta baita Nafarroan ere (%43,7). Laneko errentek EAEko bilketa osoaren %36,2 suposatu dute, eta Nafarroako bilketa osoaren %37,8 (33,4% laneko errentak eta 3,5% enpresa, lanbide eta kapital errentak). Sozietateen gaineko Zergak, berriz, %9 baino ez zuten bildu EAEko diru kutxa publikoetan, eta %9,9 Nafarroan.

Beraz, enpresak diru kutxa publikoak sostengatzen dituzten imajinario kolektibotik urrun, errealitatearen analisiak eta datu enpirikoek beste errealitate bat erakusten dute. Soldatapekoek enpresek baino hiru aldiz gehiago ordaintzen dute soldatekin enpresek euren irabaziekin baino.

Zerga motaren araberako bilketaren ehunekoa EAEn eta Nafarroan 2023an



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginia Foru Aldundietatik eta Ogasunetik abiatuta

3.2. Sozietateen gaineko zergak 2007an baino gutxiago bildu du



Pandemiaren ondorengo urteetan, enpresa marjinak nabarmen handitu dira, eta, horrekin batera, enpresen etekinak ere igo egin dira, batzuk marka historikoetara iritsiz. Gainera, gogora ekarri behar da mozkin horiek herritar gehienen kontura lortu direla, familiak itoz hipotekengatik, argiagatik eta gasagatik gehiago ordainduz. Horregatik, logikoa da enpresek ekarpen handiagoa egitea diru kutxa publikoetan. Hala ere, egiaztatu ahal izango dugunez, sozietateen gaineko zergaren bilketa oraindik ez da iritsi atzeraldi handiaren aurreko mailara.

EAE

EAEn, Sozietateen gaineko Zergaren bilketa 1.636 milioi eurokoa izan da 2023an, aurreko urtean baino %21 gehiago. 2019arekin alderatuta, %25,5eko igoera egon da. Hala ere, 2007. urtearekiko alderaketak erakusten du jaitsi egin dela enpresek ordaintzen dutena. 2007. urtean 2.034 milioi euro bildu ziren zerga honekin, hau da, 2023an baino 398 milioi gehiago bildu ziren (%19,6).

EAEko zerga bilketaren (M €) eta haren eraginaren alderaketa

8.orr





Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina Foru Aldundietatik eta Eusko Jaurlaritzatik abiatuta

Nafarroa

Nafarroan, Sozietateen gaineko Zergaren bilketa 505 milioi eurokoa izan da 2023an, aurreko urtean baino %26,4 gehiago. Hala ere, zifra horrek 2007an bildutakoa baino %17,5 txikiagoa izaten jarraitzen du, orduan 593,3 milioi bildu baitziren. Hau da, 2023an 2007an baino 88,5 milioi euro gutxiago bildu ziren Sozietateen gaineko Zergaren bidez, nahiz eta harrezkero BPGa %39,7 handitu den.

Nafarroako zerga bilketaren (M €) eta haren eraginaren alderaketa



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina Nafarroako Gobernutik abiatuta

HEH

Sozietateen gaineko Zergaren bidez 2007an bildutakoa EAeko BPGaren %3a adina izan zen, eta urte horretako Nafarroako BPGaren %3,2 adina. 2023an Sozietateen gaineko Zergak ehuneko hori bera bilduko balu, EAEn 2.777 milioi euro bilduko lirateke, eta Nafarroan 773,3 milioi euro, hau da, 1.141 eta 268,5 milioi euro gehiago, hurrenez hurren.

3.3. Zuzeneko zergen bidez bildutako 10 eurotik 7 soldatapeko errentek ordaintzen dituzte

Laneko errenten diru bilketa urtez-urte handituz doa. Honen arrazoiak, batetik, ogasunen deflazioa KPIa baino txikiagoa izatea izan da, eta, bestetik, okupazioak gora egin duela, eta, beraz, langile gehiagok ordaindu dutela zerga hau.


EAE

EAEen 6.592 milioi euro bildu dira PFEZren bidez, hau da, zuzeneko zergen bilketaren %71. Diru bilketa aurreko urtean baino %10 handiagoa izan da. 2019arekin alderatuta, %24,1eko igoera egon da, eta 2007arekin alderatuta, igoera %63,1ekoa izan da.

PFEZtik, bilketaren zatirik handiena laneko errenten atxikipenetatik etorri da, zehazki %93. Laneko PFEZaren bilketaren azterketa sakonagoa egiteko azken datuak 2021ekoak dira (bai soldatapeko errentek eta jarduera profesionalen errentek zer ematen duten jakiteko, bai tarteen arabera azterketa egiteko). Datu horiek erakusten dutenez, laneko PFEZari dagokionez, 2021ean, soldatapeko errentek guztiaren %95eko ekarpena egin zuten, eta gainerakoa jarduera ekonomikoetako errentek.


Tarteen arabera araberako analisiaren arabera, 2021ean 54.000 euro baino gutxiagoko 1.119.954 (%93,7) aitortpen izan ziren. 120.000 baino gehiago lortu zituztenak, berriz, %0,9 baino ez ziren izan.

PFEZ lan erretak



%63,1 igo da PFEZaren lan-errenten bilketa 2007tik.

%71 da zuzeneko lan-errentetatik datorren zergen bilketaren zenbatekoa




Nafarroa

10.orr

Nafarroan, PFEZko lan errentengatiko diru sarrerak 1.755 milioi eurokoak izan dira, hau da, zuzeneko zergen bilketaren %65. Beste era batera adierazita, zuzeneko zergen bidez sartutako 10 eurotik ia 7 soldatapeko errentek ekarri zituzten. Bilakaerak erakusten du lan errentek %9,9 gehiago jaso dutela 2022an baino. Are gehiago, lan errenten bilketa BPGa edo inflazioa baino gehiago handitzen ari da urtetik-urtera. Enpresei bildutakoa, aldiz, 2007an baino %17,5 txikiagoa izan da, eta orduz geroztik lan errenten bilketa %85,6 igo zen.

Nafarroako PFEZaren bilketa tarteka aztertuz gero, ikusten da 10 aitorpenetatik 9 direla 60.000 eurotik beherakoak, eta aitorpenen %0,15 baino ez daude 2 tarterik altuenetan (180.000 eurotik gora). Enpresa errentei eta errentea profesionalai eta kapitalekoei dagokienez, PFEZn 176,2 milioi euro bildu dira, zuzeneko zergen %6,5.



%85 igo da PFEZaren lan-errenten bilketa 2007tik.


%65 da zuzeneko lan-errentetatik datorren zergen bilketaren zenbatekoa

3.4. BEZa langile klaseak ordaintzen du batez ere

Zeharkako zerga nagusia (esan bezala, zergadunaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen ez duena) BEZa da. Ondasun eta zerbitzuen kontsumoa zergapetzen duen zerga atzerakoia da, eta, beraz, ondasun, produktu eta zerbitzu horiek kontsumitzen dituenak ordaintzen du.


Adierazi behar da zeharkako zergak ere batez ere langile klaseari eta laneko errentei eragiten diela, enpresa edo errenta profesionalak baino askoz gehiago baitira (PFEZ aitorpenen %86,4 Nafarroako lan errentei dagozkie), eta euren diru sarreren portzentaia askoz handiagoa bideratzen dutelako kontsumora.

Zerga honek 6.931 milioi euroko ekarpena egin du EAeko diru kutxa publikoetan, 2022an baino 9 milioi gehiago. Zerga bereziek 1.435 (%6,1 gehiago) bildu dute. 2007. urtearen aldean saldoa %34,2 handiagoa izan da.



%34,2 igo da BEZaren eta zerga berezien bilketa 2007tik

2023an, Nafarroan 1.694,6 milioi euro bildu dira BEZaren bidez, bildutako guztiaren %33,2. Bilakaerak erakusten du %2,3ko igoera izan dela azken ekitaldian, eta %44,8koa 2007tik. Zerga berezien bilketak ere gora egin du, 536,6 milioiraino, aurreko ekitaldian baino %1,9 gehiago.



BEZaren diru bilketa ez da beste zerga batzuen bilketa adina hazi azken urtean, besteak beste, hainbat produkturen BEZa jeitsi delako.

3.5. Ondarearen gaineko zergak biztanleriaren %1ari besterik ez dio eragiten

Ondarearen Gaineko Zergak pertsona aberatsenei bakarrik eragiten die. Ondare handiena duten pertsona fisikoek ordaintzen duten zerga da (enpresek eta sozietateek ez dute zerga hau ordaintzen). Zerga honek zergadunaren ondasunen balioa zergapetzen du (zorrak deskontatu ondoren).

EAE

EAEan, zerga hau 800.000 eurotik gorako ondarea dutenek aitortu behar sute (700.000 euro Gipuzkoan), eta ohiko etxebizitzagatik 400.000 euroko salbuespena ezartzen da (300.000 euro Gipuzkoan).

Zerga honen bilketa 2023an 176 milioi eurokoa izan da, 6 milioi gorakada aurreko urtearen aldean. Zerga honen bilketaren bilakaerak ez du ia aldaketarik izan azken hamabost urteetan, 2007an 154 milioi euro bildu baitziren. 2018an, 185 milioi lortu ziren, horrek esan nahi du bilketa 2023koa baino handiagoa izan zela. Deklarazioen kopurua 18.011 pertsonakoa izan zen 2022an, hau da, biztanleria osoaren %0,8. Eta 986 aitortpen baino ez ziren izan tarterik altuenean (6,4 milioi euro baino gehiago).

Nafarroa

Nafarroan, milioi bat eurotik gorako ondarea dutenek aitortu behar dute zerga hau. Balio hori kalkulatzeko, kontuan izan behar da 250.000 euro salbuesita daudela ohiko etxebizitzagatik. Gainera, zergadun bakoitzeko salbuetxita geratzen dira 550.000 euro eta PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren arteko tributazio bateratuaren zerga oinarriaren %60. Gogoratu beharrekoa da aurreko legegintzaldiko (2020tik) zerga sisteman egin zen erreforma nagusia Ondarearen gaineko Zergan enpresa jardueri lotutako ondasunak salbuestea izan zela.

Muga horien guztien ondorioz, Nafarroan biztanleriaren %1ek soilik ordaintzen du zerga hau (7.114 pertsonak 2022an), eta 52 pertsonak soilik ordaintzen dute zerga tarte altuena. Zergaren tarifa ondasunen balioaren 0,20tik 2,5era doa 10 milioitik gorako ondareen kasuan, betiere PFEZren zerga oinarriaren %60ko mugarekin. Hau guztiarekin, Ondarearen gaineko Zergaren bilketa osoa 34,7 milioi eurokoa izan da 2023an Nafarroan, bilketa osoaren %0,68. Gainera, zerga honen bilketa urtez-urte gutxituz joan da. 2013tik 2023ra, zerga bilketa %32,2 jaitsi da, eta 2020tik, enpresa jardueratik salbuetsita geratu zen urtetik, %17,8.

4. ENPRESEK ZENBAT ORDAINZEN DUTE BENETAN EUREN ETEKINENGATIK?

Sozietateen gaineko Zergaren ezaugarri nagusia da enpresek mekanismo ugari dituztela azkenean ordaintzen duten zenbatekoa murrizteko. Alde horretatik, alde handia dago tasa nominalaren (hau da, hasiera batean arauak finkatzen duenaren) eta tasa efektibo edo errearen (benetan ordaintzen dutenaren) artean.

Enpresak zergan aitortu behar dituzten irabazien zatia murrizten saiatzen dira, honen arabera kalkulatu delako ordaindu beharreko tasa. Hau da, zerga oinarria ahalik eta gehien murrizten saiatzen dira. Irabazien eta zerga oinarriaren arteko aldea kontabilitate emaitzari zuzenketak gutxituz ateratzen da:

$$\text{Kontabilitate-emaitza}^2 \text{ (mozkinak) - Zuzenketak = Zerga-oinarria}$$

Zuzenketa horien artean hauek daude:

- Dibidenduetan eta atzerrian lortutako mozkinetako partaidetzetan zergapetze bikoitzaren salbuespena.
- Enpresa taldeen kontsolidazioagatik doikuntzak, talde fiskal bereko sozietateen arteko emaitza positiboak eta negatiboak automatikoki konpentsatzea ahalbidetzen dutenak. Era berean, konpainiek aurreko urteetako galerak ken ditzakete.
- Onura fiskal batzuk.


Adierazi dugun bezala, tasa efektiboa enpresek benetan ordaintzen duten ehunekoa da. Kontua da eragiketa egitean aukeratzen den izendatzailearen arabera aldatzen dela:

1. Zerga oinarriaren gaineko tasa = Kuota likidoa³ / Zerga oinarria
2. Irabazien gaineko tasa = Kuota likidoa / Emaitza kontablea

Beraz, kalkulua zerga oinarriaren arabera egiten bada (aipatutako lehen metodoarekin), tasa efektiboaren emaitza handiagoa izango da irabazien arabera (bigarren moduarekin) egiten bada baino. Zerga Agentziaren argitalpenak hala erakusten du. Estatuko 2023ko datu berriek erakusten dute irabaziaren gaineko tasa erreala %12,3koa izan dela, eta zerga oinarriarena, berriz, %21,1ekoa.

Sozietateek duten ahalmen ekonomikoaren arabera zenbat ordaintzen duten neurtu nahi bada, bigarren metodoa aukeratu beharko litzateke, lortutako irabazietan oinarritzen dena. Kalkulu horrek gure lurraldeko sozietateen gaineko zergaren benetako argazkia ematen du. Hala ere, foru ogasunek eta Eusko Jaurlaritzak ez dute gutxieneko interesik zerga sistemaren errealitatea argitaratzeko. Emandako datu bakarrak Bizkaiko Ogasunaren urteko memoria dira. Memoria horrek aitorten kontsolidatua ematen du, kontzeptuka banakatuta, eta, beraz, horiekin tasa efektiboa kalkula daiteke.

Enpresek benetan ordaintzen duten tasa irabazien %9 da Bizkaian, zerga oinarriaren arabera kalkulaturako %20ko tasatik oso urrun, eta araudiak finkatzen duenetik are urrunago (%24). Bizkaiko datuak dira, baina pentsatzekoa da EAEko beste lurraldeetara estrapolatu daitezkeela. Horren erakusgarri da EAEko eta Nafarroako enpresa handiei 2018an egindako azterketa. Gogora dezagun ez dela iruzur fiskala, ezta elusio fiskala ere. Enpresek irabazi gisa lortutako 10 eurotik euro bakarra ordaintzeko konfiguraturata dago sistema, eta horrek soldatapeko langileek ordaintzen dutena baino askoz gutxiago suposatzen du.



5. EAEKO ETA NAFARROAKO PRESIO FISKALA EUROPAKO BATEZ BESTEKOA BAINO 8.440 MILIOI EURO TXIKIAGOA DA

14.orr

Presio fiskalak administrazio publikoek biltzen dituzten guztizko diru sarreraren (zergak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta udal bilketa barne) eta barne produktu gordinaren (BPG) arteko erlazioa neurtzen du. Hau da, administrazio publikoek ekonomiaren zein zati biltzen duten. Presio fiskala Europar Batasuneko herrialdeekin alderatzeak aukera ematen du EAEko eta Nafarroako presio fiskalaren posizioa zein den jakiteko, eta, horrela, fiskalitatearen alderdi bakoitzean dugun marjina ezagutzeko.


Europar Batasun osoan eskuragarri dagoen azken datua 2022koa da, eta %40,2ko presio fiskala neurtu du Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoak. EAEren presio fiskala BPGren %32,8koa izan zen 2022an. Grafikoak erakusten duen bezala, EAE Europar Batasuneko atzeko postuetan dago eta 27-EBko batez bestekoarekiko aldea 7,4 puntukoa da. Alde horrek esan nahi du 2022an presio fiskala EB-27ko batez bestekoaren berdina izan balitz, 6.417 milioi euro gehiago bilduko zirela. Nafarroan, 2022an, presio fiskala BPGren % 33,7 izan zen. Europa mailako konparazioan, Nafarroa EB-27ko batez bestekotik 6,5 puntura kokatu zen. Horrek esan nahi du Nafarroan Europako batez bestekoaren presio fiskal bera aplikatuz gero, administrazioek 2.023 milioi euro gehiago bilduko lituzketela.

Hau da, Hego Euskal Herrian presio fiskala Europako batez bestekoarekin parekatuko balitz, 8.440 milioi euro gehiago bilduko lirateke urtean, hau da, Hego Euskal Herriko BPGaren %7,6.

Presio fiskala EBn eta Hego Euskal Herrian 2022an

Presio fiskala

Diru-bilketa fiskalak ekonomian duen pisua



Europar baino **%6,5 gutxiago** biltzen da

Diferentzia honek **2.023 milioi euroko** bilketa txikiagoa suposatzen du

Europar baino **%7,4 gutxiago** biltzen da

Diferentzia honek **6.417 milioi euroko** bilketa txikiagoa suposatzen du

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina, EBko Argitalpen Bulegoa, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua oinarri hartuta

5.1. Hego Euskal Herriko enpresek Europako presio fiskalik txikiena dute

EAEk eta Nafarroak Europa osoko azken postuak dituzte presio fiskal orokorrari dagokionez, baina egoera are okerragoa da Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskalean.


Europako Batasunean Sozietateen gaineko zergaren bidez bildutakoaren pisua BPGren %3,26 izan zen batez beste 2022an, 2019an baino 0,6 puntu gehiago. EAEn, berriz, %1,56koa izan zen, 2019an baino 0,08 puntu gutxiago. Nafarroan % 1,64koa izan zen, 2019an baino 0,4 puntu gehiago. Aplikatutako tasa baxuen eta Sozietateen gaineko Zergan izandako iruzur fiskalaren ondorioz, EAE eta Nafarroa Europa mailan zerga honen presio fiskalaren rankinean atzeko postuetan daude. Norvegia, Zipre eta Herbehereak izan ziren ehuneko handiena izan zuten herrialdeak, eta Alemaniak eta Frantziako Estatuak Europako batez bestekoaren antzeko pisua izan zuten BPGren gainean.

Europako batez bestekoaren presio fiskal berarekin, 1.472 milioi euro gehiago bilduko ziren EAEn 2022an, eta 393 milioi gehiago Nafarroan.

Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala EBn eta Hego Euskal Herrian 2022an

Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala

Sozietateen gaineko zergaren diru-bilketak ekonomian duen pisua



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina, EBko Argitalpen Bulegoa, Eusko Jaurlaritzza eta Nafarroako Gobernuaren onarri hartuta

6. IRUZUR FISKALA ENPRESETAN ETA ENPRESA ERRENTETAN

16.orr

Kenkariei, doikuntzei eta hobariei enpresek beren makineria fiskalari esker egindako iruzur fiskala gehitu behar zaie. Aipatzekoa da sozietateen gaineko zergak enpresek eta sozietateek aitortutako irabaziak soilik zergapetzen dituela, eta, beraz, irabazirik ez dutela edo galerak alegatzen dituztenek ez dutela zerga honengatik ordaintzen.

Zerga honetan gertatzen den iruzurraren erakusgarri da, beste behin ere, 2021eko ekitaldian EAEn (eskura dagoen azken datua) enpresa eta sozietate guztien % 46k galerak aitortu izana, eta % 17,9ak 6.000 eurotik beherako irabaziak aitortu izana. Nafarroan, 2022an, 19.820 sozietatek aitortu behar izan zuten Sozietateen gaineko Zerga, eta horietatik 8.379k zeroko aitortpena egin zuten (% 42,3) eta 4.176k galerak aitortu zituzten (% 21,1). Hau da, enpresen eta gainerako sozietateen % 63,4k adierazi zuten ez zutela ezer irabazi edo galerak izan zituztela. Bistan da datu hauek ezin dutela errealitatea islatu.

Gainera, autonomoen aitortpenean egiten den iruzurra ere aipatu behar da. Horren adierazle garbia da lan errentek aitortutako batez besteko errenta 26.726 eurokoa izan zela 2021eko ekitaldian EAEn, jarduera ekonomikoengatik aitortutako batez besteko errenta baino 9.686 euro handiagoa, 17.040 eurokoa izan baitzen.



7. ONDORIOAK

Hego Euskal Herrian gutxi eta modu injustuan biltzen da

Europako gainontzeko herrieekin egindako alderaketak erakusten du presio fiskalari dagokionez EAEko eta Nafarroako defizita izugarria dela: 8.440 milioi euro gehiago bildu beharko lirateke (BPGaren 7,6 puntu) Europako batez bestekoa berdintzeko.

Gainera, sistema fiskal guztiz bidegabea da langile klasearentzat: bilketaren ia erdia zeharkako zergetatik dator (ordaintzen dituenaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartzen ez dutenak eta batez ere langile klaseak ordaindutakoak), eta zerga zuzenen bidez bildutako 10 eurotik 7 laneko errentetatik datoz.

Gainera, mugen eta salbuespenen ondorioz, Ondarearen gaineko Zergak biztanleriaren %1ari besterik ez dio eragiten, zergaren bilketa ia hutsala eginez.

Enpresek eta enpresa errentek ahal dutena baino askoz gutxiago ordaintzen dute zerga sisteman

EAEan eta Nafarroan enpresek gutxiago ordaintzen dute Sozietateen gaineko Zergarengatik Estatuko beste edozein lekutan baino, eta Europa mailako presio fiskalaren taulan beheko aldean daude.

Are gehiago, enpresek irabazien 10 eurotik 1 baino ez dute ordaintzen. Mozkinen gainean kalkulaturako tasa efektiboak erakusten du enpresek %9 baino ez dutela ordaintzen.

Argi dago benetan ahal dutena baino askoz gutxiago jasotzen zaiela. Horren erakusgarri da enpresek 2007an BPGarekiko ordaintzen zuten kopuru bera ordainduko balute, 2023an 638,8 milioi euro gehiago bilduko liratekeela Hego Euskal Herrian.

Iruzur fiskal handia dago

Enpresen zerga karga txikiari iruzur fiskala gehitu behar zaio: Hego Euskal Herriko 10 sozietetatik 6k galerak edo diru sarrerarik ez dutela aitortzen dute.

Iruzurra argi eta garbi ikusten da PFEZn ere, enpresa errentek laneko errentek baino gutxiago irabazten dutela aitortzen dute eta.

Politika fiskala ez da aldatu nahiz eta pandemia pasa

Egoerak aurreko urteetako berbera izaten jarraitzen du nahiz eta pandemian agerian geratu zen administrazio publikoen baliabide falta, eta bereziki, Osakidetza eta Osasunbidearen egoera txarra langile faltarekin eta abarrekin lotuta. Hasiara batean egitekoak ziren erreformak ez dira gauzatu, eta datozen hilabeteetan egingo diren erreforma fiskalek ez dute aldaketa handirik aurreikusten.

Premiazkoa da zerga politika errotik aldatzea

Kapitalari eta errenta altuei zerga zama handitu behar zaie. Era berean, iruzur fiskalaren aurkako borroka hareagotu behar da.

Nafarroako zerga politika ez da aldatu UPN Gobernutik atera zenetik, eta orain murrizketak datoz berriro

UPN Nafarroako Gobernutik atera zenetik ez da aldatu presio fiskalean dagoen defizita, lan errenten gainean kargatzen den zerga egitura bidegabea, ezta enpresek eta enpresa errentek posible dutena baino askoz gutxiago ordaintzea ere.

ELAk ohartarazi izan du erreforma fiskalari uko egiten bazaio, murrizketak itzuliko direla. Orain, austeritate politiken itzulerarekin (Nafarroako Gobernua osatzen eta babesten duten alderdiei esker onartutakoa) eta Europako funtsen amaierarekin, Nafarroako Gobernuak aurreratu du murrizketak egingo direla 2025ean.

Gizarte eredia definitzeko funtsezkoa den gai honetan, fiskalitatean, ez ezkerreko edo aurrerakoia den talde parlamentario batek ere ez du beste zerga politika bati buruzko eztabaidarik planteatzen, ezta langile klasearentzat alternatiba bidezkoagoak proposatzen ere. Hori oso albiste txarra da gizarte eraldaketaren aldeko apustua egiten duten erakunde guztientzat.

8. ELA-REN PROPOSAMENAK

ELAk uste du aberastasuna hobeto birbanatzen duen eta baliabide publiko gehiago dituen gizarte bati egiten dion ekarpena, besteak beste, egungo zerga politikari alternatiba posibleak planteatzea dela. Horixe egiten du politika fiskala aldatzeko mobilizazioak bultzatzen dituen edo egungo politika fiskala eta hartzen diren neurriak aztertzen dituen dokumentuak egiten dituen. Hauek dira ELAren proposamen nagusiak langileentzako sistema fiskal bidezkoago baterantz aurrera egiteko:

8.1. Zerga erreforma

Eskumena duten administrazioen ardura da zerga sistema gero eta bidegabeagoa eta aberastasuna okerrago banatzen duena izatea. Horregatik, erakundeak interpelatu behar ditugu aldaketa eskatzeko. Zentzu honetan, ELAk berretsi egiten ditu azken hilabete eta urteetan mahai gainean jarri dituen proposamenak.

ELAk, enpresen mozkinengatik, aberastasunagatik eta errenta altuengatik ordaindu beharreko zergak nabarmen handituko dituen erreforma fiskala exijitzen du, Covid-19aren krisi sanitario, ekonomiko eta sozialari aurre egiteko sindikatuak egindako proposamenen ildotik. Zehazki, ELAk honako neurri hauek planteatzen ditu, eta esan behar da Foru Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak erabateko eskumena dutela neurri hauek gauzatzeko.

PFEZ

1. Lehenik eta behin, beharrezkoa da pertsona aberatsenen diru bilketa jaistea eta desberdintasunen areagotzea ekarri duten PFEZan egindako erreformak atzera botatzea. Duela hamarkada gutxi %66an kokatzen zen gehieneko tarifa. Gaur egun, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako ogasunen kasuan, tarifen gehieneko tarte marjinala %49koa da, eta Nafarroan, berriz, %52koa.

Horregatik eskatzen dugu:

- Errenta altuenen zerga tasak handitzea. Azken urteetako beherapenak atzera egitea eta gutxienez %66an kokatzea (milioi 1 eurotik gorako errenta dutenen kasuan % 80ra igotzea aztertzea).
- Honek, tarteak gehitzea ere ekarri beharko luke, progresibotasun handiagoa lortzeko

2. Denbora daramagu salatzen kapital errentek (akzioetatik, partaidetzetatik eta alokairuetatik nagusiki diru sarrerak dituztenek) tratu pribilegiatua dutela HEHko zerga sisteman. Ez du inolako zentzurik kapitaletik lortzen diren errentek lanekoek baino gutxiago ordaintzea. Ildo horretan, funtsezkoa da tarifaren dualtasuna ezabatzea, edo, bestela, tasa handiagoa ezartzea kapitaletik lortzen diren errentetarako.

3. BGAEek eta pentsio planek (pribatuek zein enplegukoek) zerga ordainketan aldeko tratua dute. Biek murrizten dute PFEZaren zerga oinarria. Gainera, plan pribatuen kasuan, erreskatatzean soilik %60agatik ordaintzen dute zerga. Bidegabekeria horren aurrean, hau eskatzen du ELAk:

- Zerga oinarriaren murrizketak urteko 1.500 eurora mugatzea, lehentasunezko BGAEen kasuan izan ezik (kasu honetan, 3.000 euro urtean).
- Erreskateak %100ean ordaindu behar dira. Salbuespen bakarra lehentasunezko BGAEen kasuan izan beharko litzateke, ekarpena egin den urte bakoitzeko %1eko murrizketa aplikatu baitezakete, nahiz eta murrizketa hori %20ra mugatu behar den.

Sozietateen gaineko zerga

1. Sozietateen gaineko zergaren eta tasa errealaren bilketa jaitsieraren aurrean, beharrezkoa da ekitaldiko mozkinen gaineko %25eko gutxieneko tasa efektiboa ezartzea, salbuespenik gabe.
2. Kenkari eta pizgarri fiskalak eta ingeniariak fiskala kentzea, tasa efektiboa tasa nominalarekin berdintzeko.
3. Gehiegizko mozkinengatik zerga ezartzea. Azken urteotan ikusi ahal izan dugu enpresek testuingurua aprobetxatu dutela beren irabaziak izugarri handitzeko. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela enpresa handien aparteko onura horiek zergapetzea krisi testuinguruak gertatzen direnean.

Ondarearen gaineko zerga

Ondarearen gaineko zerga desberdintasunak eta aberatsenek duten boterea murrizteko tresna da. Bidezkoa da gehien dutenei gehiago ordainaraztea. Horregatik beharrezko ikusten dugu:

- Aberatsenen kasuan, zergaren tarifa %4ra igotzea.
- Zerga honen eta PFEZaren zerga muga orokorra ezabatzea.

8.2. Nazioartean

ELAn jabetzen gara inguratzen gaituen errealitateaz, eta, horregatik, beharrezkoa da gauzak Hego Euskal Herri mailan ez ezik, Europa eta mundu mailan ere aldatzea. Zentzu horretan, zergak Europar Batasun osoan harmonizatzea eskatzen dugu, dumping fiskala saihesteko, sozietateen gutxieneko zergarekin gertatu zen bezala. Ezinbestekoa da bide horretan jarraitzea eta enpresa guztiei %25era igotzea tasa.

Era berean, duela gutxi egindako azterlanen arabera, milimiloidunek gizarteko dezil txikienek baino zerga tasa txikiagoa ordaintzen dute. Egoera honen aurrean, aberastasunari zerga ezarri behar zaio Europan. Gabriel Zucmanek dio milimiloidunek urtero beren aberastasunaren %2 ordaintzen dutela.

Paradis fiskalei dagokienez, Oxfam⁴ diotenaren arabera, beharrezkoa ikusten dugu aberastasunaren benetako jabeak nortzuk diren jakitea, enpresen eta beste erakunde legal batzuen onuradun eraginkorren erregistro publikoak eginez. Era berean, "pantaila-enpresak"⁵ debekatu beharko liriateke, eta offshore aktibo fisikoen benetako jabeak zeintzuk diren argitara emango duen aktiboen munduko erregistro bat martxan jarri.

8.3 Iruzur fiskalaren aurkako borroka

ELAk erreklamatzan du ogasunei nahikoa baliabide ematea preskripzio aldian soldataz besteko errenta guztiak ikuskatu ahal izateko. Horrek esan nahi du gehienez ere lau urteen buruan ikuskatuko direla enpresa guztiak, bai eta kapital errentak eta jarduera ekonomikoen errentak ere.

8.4. Zerga politika osoa EAEko eta Nafarroako parlamentuetan erabakitzea

Eskumen guztiak Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren esku egon beharko liriateke. Gaur egun, zuzeneko zergen gaineko araugintza eskumena baino ez dago, eta zeharkako zergak eta gizarte kotizazioak Madrilen erabakitzen dira. Gainera, zerga horiek Ogasunen diru sarrera gehienak dira, eta horrek esan nahi du Hego Euskal Herriak ez duela subiranotasun fiskalik.

EAEren kasuan, zergei buruzko erabakiak Eusko Legebiltzarrean hartu behar dira. Hori litzateke hiru lurraldeen arteko harmonizazioan aurrera egiteko modurik eraginkorrena, demokratikoena eta gardenena.

4 Oxfam txostena -2023ko urtarrila

5 Legez eratuta egon arren, benetako jabeen nortasuna ezkutatzeko, legez kontrako finantza-transakzioak errazteko edo zergak eta erregulazioak saihesteko erabiltzen diren erakunde juridikoak dira.

8.5. Gardentasun estatistiko handiagoa

Administrazioek jorratu beharko luketen gaietako bat eskaintzen den informazioaren gardentasuna da. Besteak beste:

- Ez da homogenea, eta ez du ahalbidetzen HEHko ogasunen zergei buruzko azterketa egokiak egiten.
- Eusko Jaurlaritzak argitaratutako urteko azken txostena 2022koa da (2024ko irailaren 2an jarri zen web-orrian), eta 2021eko datuak ditu. Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek 2021eko datu bereziak eman dituzte, eta Arabako Foru Aldundiak eta Nafarroako Ogasunak 2022ko datuak dituzte eskuragarri 2024ko irailean. Hori guztia, datu horien eskuragarritasuna berehalakoa izan arren. Aipatzekoa da Espainiako Zerga Ogasunak apirilko hilabeteetan eguneratzen dituela aurreko urteko ekitaldiko datuak, hau da, 2025eko apirilera 2024ko datuak izango ditugu. Aldiz, HEHren informazio bera ezagutzeko, gutxienez 2026ra arte itxaron beharko dugu.
- Ez dute tasa efektiboari buruzko datu egokirik ematen, eta ez dago enpresa mozkinen buruzko daturik, etab.

Hori guztia, nahiz eta ogasunek datu horiek izan. Datu horien publikitatea mugatzeak gardentasuna kentzen die aldundiei eta Ogasunari, bai eta fiskalitatea modu kritikoan aztertzeko aukera ere. Estatu espainiarrak berak, Zerga Agentziaren eta Espainiako Bankuaren laguntzarekin, Enpresa Marjinen Behatokia sortu du. Behatokiak enpresen, sektoreen eta abarren emaitzei buruzko informazioa erakusten du. Beharrezkoa da datuak modu harmonizatuan bereiztea aldundien artean, maiztasun handiagoarekin, sistema fiskala gardentasun handiagoz hornitzeko.

Bestalde, eta Oxfamek eskatzen duenaren ildotik, gardentasun handiagoa eskatu behar zaie enpresa multinazionalari, eta publiko egin ditzatela beren irabaziak, diru sarrerak, langile kopurua eta beste funtsezko datu ekonomiko batzuk jarduten duten herrialde guztietan, herrialdez herrialdeko txosten publikoak aurkeztuta.

OHARRAK:

A series of horizontal dotted lines for writing.